

INTERSEKZIONALITATEA

Mugarik Gabe Nafarroan urteak daramatzagu formazio-tailerrak, dinamikak eta saioak prestatzen eta burutzen, bai beste kolektiboek eta erakundeek eskatuta baita gure kabuz ere. Esperientzia guzti hori tailer bilduma batean bildu eta sistematizatu nahi izan dugu, partekatu ahal izateko eta errepikatu nahi duenak egin ditzan. Baliabide hau beste kolektibo batzuen tailerretatik abiatzen da eta gure hausnarketekin elikatu dugu, beraz, etengabe eraikitzen eta errebisatzen ari garen materiala da, zeure hausnarketekin ere elikatzea animatzen zaitugu.

Material hau gure ekintzek dakartzaten ondorioen inguruan hausnartu eta eztabaidatu nahi duten pertsona eta kolektiboentzat baliagarria izatea espero dugu, gure egunerokotasunean aldaketarako konpromisoak hartu ahal izateko.

Tailer honetan **interseksionalitate** kontzeptua ezagutarazi nahi dugu, gure pribilegioak identifikatu eta errebisatzeko asmoz, horretarako, beste kolektibo batzuek irakatsitako dinamika batez baliatu gara.



Irudia: revistacrisis.com

Behar ditugun materialak: horma-irudi bat lore batekin (ikusi 2. orrialdeko irudia) eta gomet (9 gomet parte-hartzaile bakoitzeko, guztiak kolore berekoak baldin badira errazago egingen zaigu gero ikustea non biltzen diren gehiago, non ditugun espazio hutsik...).

Iraupen hurbildua: 40 minutu.

Tailer hau Mugarik Gabe Nafarroako lan-taldeak egin du proiektu honen testuinguruan:
"Munduaren kontzientzia kritikoaren sustapena giza eskubideen ikuspegi batekin".

Proiektua:



Mugarik Gabe
Nafarroa

OCSI
Organización de Cooperación
y Solidaridad Internacional

Fundación Fundazioa

IPES


Aldi bereko finantzaketa:



Ayuntamiento de
Pamplona
Iruñeko Udala

9 petaloz osatutako lore bat dugu, bakoitzak kategoria bati lotuta:

- Genero: maskulinoa / femeninoa+bestelakoak
- Adina: 25-55 / <25 edo >55
- Klase: ertain-altua / baxua
- Arraza: mendebaldeko txuria / bestelakoa
- Funtzionalitatea: funtzionala / aniztasun funtzionala
- Nazionalitatea: espainiarra / bestelakoa
- Formakuntza (kapital kulturala): unibertsitatea / bestelakoa
- Orientazio sexuala: hetero / homo+bestelakoa
- Hirikoa / Landa eremukoak



Pertsona bakoitzak 9 gomet ditu eta petalo bakoitzean bat jarri behar du, bere burua non kokatzen duen arabera.

Lorea aztertzen

Izan dugun emaitza aztertzeko hainbat galdera proposatzen ditugu:

- *Non dugu gomet gehien?*
- *Non dugu gomet gutxien?*
- *Nortzuk daude erdian eta nortzuk ertzetan? Zergatik?*

Pertsona bakoitza identitate sozial ezberdinek zeharkatzen dute, haien artean lotura dutenak (arraza, genero, klase...). Identitate hauek (edo subjektibitate), sozialki eraikitakoak direla uste dugu. Kategoría hauek zapalkuntza eta diskriminazio logika berari erantzuten diote: pertsona batzuk erdian jartzen ditu eta beste batzuk ertzetan, erditik hurbilen daudenei pribilegioak emanez, hau da, urrunen daudenak zapalduago daude.

Adibidez: nazionalitate espainiarra ez duenak ez du hiritartasun-maila bera eta, hortaz, nazionalitatea duena baino eskubide gutxiago du. Pertsona batzuen arteko desberdintasuna sortzen da.

Era berean, kategoría hauek nahasten dira eta aldi berean jokutzen dute: adibidez, nazionalitate espainiarra ez duen emakume beltza desberdintasun egoera handiagoa da.

Zer zapalkuntza-sistemei erantzuten diete kategoría hauek?

- Patriarkatua.
- Heldu-zentrismoa.
- Klasismoa.
- Arrazakeria.
- Kapazitismoa.
- Kolonialismoa.
- Heteronormatibitatea.

Sistema honek zapalkuntza mota asko du: genero motakoa, kulturalak, maila sozioekonomikoaren arabera... Batzuetan zapaltzaileak gara, besteetan zapalduak; zapaltzaileak eta zapalduak aldi berean.

Zer da interseksionalitatea?

Interseksionalitatea lorearen petalo bakoitza da (petalo bakoitza elkargune bat da, *interseksio* bat). Loretik kanpoaldean dagoena zapaldua dagoena izaten da, eta aldi berean lorea bere pribilegioekin sostengatzen duena. Kapitala erdian egoten da eta kapitalaren antolakuntza motaren inguruan oinarritzen da.

Kontzeptua 1989an sortu zuen Kimberlé Williams Crenshaw akademiko estatubatuarra. Haien artean erlazionatuta dauden identitate sozial ezberdinek (arraza, genero, klase...) pertsona bakoitza zeharkatzen dutela dio fenomeno honek. Eraikitako identitate sozial hauek elkarrekiko harreman osatzailea dute (beltza/txuria, emakumea/gizona...). Beraz, pertsonak zapalkuntza(k) pairatzen du edo pribilegioa(k) du era askotako kategoria sozial hauen parte den heinean.

Interseksionalitate terminoak begiak irekitzen digu ez garela identitate homogeenak erakustean, eta zapalkuntza/pribilegio sistemak, isolaturik egon ordez, erlazionatuta daudela eta aldi berean persona berean eragin dezaketeela erakusten digu.

Kooperazio kritiko batek zapalkuntza horiek identifikatzen jakin beharko luke, eta kooperazio eraldatzaile batek zapalkuntza horiek ezereztatzeko prozesuak sustatu beharko lituzke.



Informazio gehiago / Kontaktua:

Web orria: www.mugarikgabenafarroa.org

Telegram kanala: <https://t.me/mugarikgabenafarroa>

E-posta / Tfnoa: info@mugarikgabenafarroa.org / 948 10 73 37